

txanela

Irakaslearen gidaliburua
(zirriborroa)

2

Egipto: Nilo ibaiaren oparia

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 3. maila)

TXANELA 3: BIGARREN UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDA

“EGIPTO, NILO IBAIAREN OPARIA!”

Oharra: Gai honen bidez, Txanela proiektuan, lehen ziklotik hasita, historiaren ardatzari eman zaion begiratuari (*Dinosauroen garaia, lehen gizakiak, Grezia...*) jarraipena ematen diogu. Unitate hau lantzerakoan, ikasleek Egiptori buruz hainbat eta hainbat gauza ikasiko badituzte ere, hau ez da lehentasunezko helburua. Gai honen inguruan, hizkuntza, plastika eta dramatizazioa lantzeaz gainera, inguruneari dagozkion hainbat prozedura, informazioaren trataerari dagozkionak, alegia, (grafikoak, kontzeptu-mapak...) eta konparatzeko eta erlazionatzeko gaitasunak landu nahi ditugu, batik bat. Bestetik, gure lanaren oinarria Antzinako Egipto bada ere, komenigarria da hurrei adieraztea gaur egun Egipto han dagoela eta bertako bizimodua, egun, antzinakoa bezalakoa ez dela. Egungo bizitzari buruz lortzen duzuen informazioa antzinakoarekin konparatu, gurearekin konparatu eta aldaera horien inguruan hitz egin.

****Unitateko proiektu nagusia:***

Gaiaren inguruko informazioa bildu ahala, maketatxo bat eraiki eta erakusketa antolatzea.

ZEHAR-LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	Hezkuntza jasotzeko eskubidea.
----------------------------------------------	--------------------------------

EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Olerkiak. Joxan Ormazabal. Igarkizunak. Joxan Ormazabal. Gaiaren ipuina: Maialenen egunerokoa. Mitzel Murua. Bertsoak: “Lore bakoitzak bere arantza” “Euskal pilota”. Mikel Mendizabal, Ipuin literarioa: “Itsasoa etxe barruan”. Harkaitz Kano. Tradizioko abestia: “Euskal Herrian euskaraz”.
Musika eta gorputz motrizitatea	Unitateko abestia. Joxan Ormazabal eta Imanol Urbietta. Koplak: “Ederra zareala”. Tapia eta Leturia.
Ingurumena	Euskal herriko uholdeak. Hausnarketa soziolinguistikoa: Euskararen egoera. Elkartasun-jolasak

Bibliografia euskaraz:

**Ezagutu... EGIPTOARRAK*. Tartalo.

**Historia harrigarriak. Faraoiak*. Elkar.

**Antzinako herriak. Gazteentzako entziklopedia*. Tartalo.

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoak ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduerak sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduerara zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduerak ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektugailu, erreproduzitzaile, etab. erabili beharrik gabe.








Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitaletan edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 3

IKASLEAREN LIBURUA - 2. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliabideen taula	3	45	
11		Afrikan Egipto	11	53	
15		Entzunaldia: Ra'etak	15	57	
18		Nilo ibaiaren gorabeherak	17	59	
28		Euskal pilota	21	63	
42		Aintzinako Egiptoko eraikinak	29	71	
48		Lore bakoitzak bere arantza	33	75	

JARDUEREN ANALISIA

1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Unitate didaktikoaren azala

Liburuaren azalari behatzea eta elkarrizketa bultzatuko ditugu, aurre-ikuspen-estrategiak landu eta hurrak motibatuzko asmoz. Azala da unitate bakoitzaren egituraren hasierako jarduerari sarrera ematen diena.

Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntza-funtzioetan oinarrituko gara, elementuak izendatuz, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazonatuz eta iragartzeari bidea emanez.

- *Zer adierazten digu izenburuak? Zergatik izan daitekeela uste duzue ibaia Egiptoko oparia?*
- *Ba al dakizue non dagoen Egipto? Zer dakizue Egiptori buruz?*
- *Ezagutzen al dituzue azalean agertzen diren irudiak? Izenda itzazue.*
- *Zer landuko dugula uste duzu gai honetan?*

Bukatzeko, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

2. Komikia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.

Komikia irakurtzen hasi aurretik, izenburuari erreparatuko diogu eta, horren inguruan elkarrizketa bultzatuz, bi hizkuntza-funtzio jarriko ditugu martxan: arrazoitzea eta iragartzea:

- *Zein izango ote da izenburuan aipatzen den hegalaria hori? Nora joango dela uste duzu Kleo? Zergatik?*

Ondoren, ikasleek bakarka irakurriko dute komikia. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian hitza bezain adierazgarriak izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozer xehetasun; beraz, eman iezaiezue behar beste denbora horri sakonki beha diezaieten.

Gero, taldean, komikiaren inguruko elkarrizketa butzatuko dugu eta Tough-en hizkuntza-funtzioak martxan jarriko ditugu:

- *Morgan eta Xarpa liskarretan dabilta. Zergatik haserretu direla uste duzu? Normala al da etxe berean bizi diren kideak euren artean noizbehinka haserretzea? Zu haserretzen al zara? Noiz? Zergatik? Nola konpontzen dituzue haserrealdi horiek?*
- *Zergatik dio Martinek Morgan Lekeitiora bidali behar dutela? Zer dago, bada, Lekeitio antzarentzat?...*
- *Komikian bada euskal esaera zahar bat. Ba al dakizue zein? "Zozoak beleari ipurbeltz". Eta zein da horren esanahia? Ezagutzen al duzue gauza bera adierazi nahi duen beste esaeraren bat?*
- *Pertsonaia guztiak pozik daude Kleo badoalako Egiptora, baina denen artean bada bat bestelako sentimenduak adierazten dituena? Nor da? Komikiko zerk bultzatu zaitu pentsatzera Morgan dela? Zer sentimendu izango ditu barrenean? Nola sentituko dela uste duzu? Nola sentituko zinateke zu? Eta Kleo, nola sentituko dela uste duzu badoalako? Zuk bidaiaren bat egiten duzunean, nola sentitzen zara? Eta zure familiako kide edo lagun bategi alde egin behar duenean, zer sentimendu izaten dituzu?...*

Solasaldiaren ostean, komikiko pertsonaien banaketa adostu eta, talde handian, ozeneko irakurketari ekingo diogu; hizkuntzaren baliabideei emango diegu garrantzia.

Komenigarria da ikasleei birgogoratzea, arreta berezia jarri beharko dietela elementu prosodikoei (intonazioa, etenak, bolumena...), ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gainera doinuaren garrantzia azpimarratuz.

3. Olerkia

Lan egiteko era: Talde handian

Komikian Martinek Kleori “Mari Berandu” deitzen dio, beti berandu ibiltzen delako. Euskal Herrian ahozko tradizioaren barnean, emakume baten ezaugarri bat modu xelebrea edo mespretxagarrian adierazteko, Mari hitzari ezaugarri horrekin zuzenean lotura duen izena eranstean zaio, eta, horrela, adjektiboak eratzen dira. Adibidez: Mari + Bentana = Mari Bentana (kuxkuxera), Marikatilu, Marifregona, Marinerbio, Maritreta, etab.

Gizonezkoekin, berriz, Mari hori atzean jartzen da, adibidez; Gixajomari (koitadua), Bartolomari (lodia), etab.

Galdetu egingo diegu ikasleei ea Mariberandu horrez gainera besterik ezagutzen duten, eta esamolde horren haritik, Anjel Lertxundiren *Aizak eta aizan elkarrekin dantzan* liburuko olerkiak edo hitz-jokoak irakurriko dizkiegu ikasleei.

Mari bentanas

- Mari bentanas?

- Jakin-minaren afanas.

- Mari olio?

- Ozpina hartu du nobio.

- Mari Sukaldes?

- Kontu guztiak aldrebes.

- Mari Taberna?

- Zurrutan dabilena.

- Mari Tipula?

- Negarrarekin eztula.

Hitz-joko horiek erabili ondoren, irudimena astinduz eta umore-puntua jarriz, berriak asmatzeari ekingo diogu.

4. Aurre ezagutzak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.

Hasteko, ikasleei tartetxo bat emango diegu orrialde horretan dagoena irakurtzeko eta osatzeko. Gero, talde handian eta arbelean, kontzeptu-mapa simple hori ulertzen eta osatzen saiatuko gara ikasle guztien ekarpenekin. Lehenengo eta behin, Egipto hitza idatziko dugu arbelean eta ikasleei adierazi hitz hori dela beste guztiak biltzen dituen.

5. Proiektua

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.

Talde handian, unitate honetan proposatzen zaigun proiektua zein den argituko dugu: Egiptoko gaia landu bitartean, informazioa bilduko dugu eta maketa eraikiko dugu, gero, erakusketatxo antolatzen. Interesgarria da denon artean aurreikustea eta hitz egitea nolako izango den, zer material beharko ditugun, zer elementu jarriko ditugula bertan uste dugun, etab. Bukatzeko, ikasle bakoitzak bere ustetan maketa izango denaren irudia egin beharko du.

6. Ikasnorabidea

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.

Lehenengo unitatean egin genuen bezala, gaiaren sekuentzia tematikoa zein den jakiteko, ingurumen arloa den lehenengo zutabea irakurtzeari ekingo diogu. Ondoren, eman iezaiezue ikasleei tarte bat, bakarka nahiz binaka, irakur eta komenta dezaten beste arloetan ere zer den ikasiko dutena unitate berean.

Gogora ezazue ikasnorabidea ikasleen ikasketa prozesuaren autoerregulaziorako tresna dela eta, unitatean murgildu ahala, behin baino gehiagotan etorri beharko duzuela bertara, eduki-bloke bakoitzean arlo ezberdinetan lantzen ari zaretenaz jabetzeko.

7. Txoko zuria

Lan egiteko era: Talde handian

Behin ikasleek argi dutenean zein den egingo duten proiektua eta baita proiektu hori burutzeko zer ikasi behar duten ere, txoko zuria hornitzen hasteko unea heldu da. Hau da, taldean hitz egin ezazue bakoitzak gaiarekin zerikusia duen zer elementu izan ditzakeen etxean gelara ekartzeko (liburuak, posterrak, irudiak, jolasak, marrazkiak, argazkiak, bideoak, komikiak, panpinak, mozerroak...) eta ekarri ahala, aurkeztu eta txokoan jarri.

Aurreko ikasurteetan, txoko zuria hornitzeko gurasoei gutun bat bidali izan zaie haurren bidez. Hirugarren mailako haurrak gai dira eta egokia da enkargutxo hauetaz arduratzea. Nolanahi ere, erantzuna espero bezain egokia ez bada, tarteka, gutunen bat bidal dezakezue.

Hona eredu bat:

Kaixo, familia:

Ikusten duzuen bezala, ikasurtea hasi bezain pronto hasi gara berriro ere gure istorioetan murgiltzen. Oporren ostean, eta gure herria hobeto ezagutu ondoren, gure zientzialari-bidaiaria Kleo Egiptora joan zaigu, gu inbidiatan utzita. Baina, gu ez gara geldirik egotekoak, eta... guk ere Egiptori buruz gauza asko ikastea erabaki dugu, ondore, n maketa dotore-dotore bat egiteko.

Beraz, hilabete honetan, Egiptoren inguruko gauzak ikusten eta ikasten ibiltzeko asmoa dugu, eta, horretarako, etxean gai honi buruz dituzuen liburuak, aldizkariak, posterrak, panpinak, etab. zuen seme-alabei ikastolara ekartzen uzteko eskatu nahi dizuegu.

Dakizuen bezala, gaia bukatu bezain laster, berriro etxera eraman ahal izateko, oso garrantzitsua da gauza guztietan izena eta deitura jartzea.

Besterik gabe, zuen laguntzarekin txoko zuria materialez ondo hornituta edukiko dugulakoan, eta, oraingoan ere, zuen seme-alabekin batera Egiptori buruzko gauza asko ikasiko duzelakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.

Mei Li, Xabier, Martin, Xarpa eta Morgan.

Hola, familia!

Como podéis comprobar, nada más empezar el curso ya nos hemos metido de lleno en nuestras aventuras. Esta vez, nuestra amiga Kleo, gran científica, ha viajado a Egipto para participar en un congreso y llevar algunos libros a la Biblioteca de Alejandría. Como nos ha dejado aquí, hemos decidido no desaprovechar el tiempo y aprender muchas cosas acerca de Egipto, para poder realizar una preciosa maqueta.

Como siempre, mediante esta carta queremos pedir vuestra ayuda. Es decir, que nos mandéis a la IKASTOLA todo aquello relacionado con el tema que tengáis en casa: libros, revistas, posters, muñecos... No os olvidéis de poner el nombre a lo que mandéis para poderlo recuperar.

Sin más y agradeciéndoos de antemano vuestra preciada colaboración, nos despedimos.

Mei Li, Xabier, Martin, Xarpa y Morgan.

8. Berria

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak 3, 20. or./5. lan-koadernoan, 20. or.

Irakurgaietan berri batekin egingo dugu topo. Testu mota honi buruzko elkarrizketatxoak garatuko dugu, lehenik, talde handian.

- Zer testu mota daukagu esku artean? Horrelako gehiago ikusi al ditugu? Noiz eta non?
- Nork idazten du?
- Zer funtzio du berriak?
- Zer ezaugarri izaten dituzte berriek? (errealitateari erantzuten diote, prentsa idatzian nahiz beste komunikabideen bidez jasotzen dugu...)
- Eta egitura? (titularra, azpi-titularra, argazkia, argazki-oina, eta berria bera)

Ikasleek, bakarka, Alexandriako liburutegiari buruzko berria irakurriko dute eta, gero, lan-koadernoan, irakurritakoaren ulermena bermatzeko egia-gezurra erako jarduera osatu beharko dute. Ondoren, talde handian, lan-koadernoko ariketa zuzenduko dugu, aukeraketak argudiatuz eta gezurra diren esaldien erantzun zuzena ahoz adieraziz.

Bukatzeko, talde txikietan, irakurketaren ikaskuntza elkarkaria aplikatzerakoan egiten genuen “Kazetariaren lana” (irakurritakoaren laburpena edo sintesia egiten duena) denon artean betetzeko eskatuko diegu eta, gero, hizlari batek ahozgoran gela osoari adieraziko dio. Horrela, irakurketaren estrategietako bat modu esplizituan landuko dugu, irakurritakoaren ideia nagusiak edo garrantzitsuenak identifikatuz, geure hitzekin adierazteko.

9. Itsasoa etxe barruan

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 10. or./“Itsasoa etxe barruan” ipuina

Hasteko, tarte bat emango diegu ikasleei orrialde horretan dagoena bakarka irakur dezaten. Ondoren, denon artean, laburpen tentagarriaren azalpena irakurri, argitu eta orrialde horretan proposaturiko ipuinaren laburpen tentagarria irakurri eta aztertuko dugu.

Esan beharra dago, eta ikasleek ere jakin beharra daukate, laburpen tentagarria eta liburuaren laburpena ez direla gauza bera. Laburpenak piz dezake liburua edo ipuina irakurtzeko gogoia edo, agian, ez. Laburpen tentagarriak, berriz, beti beteko du pizte edo amu funtzio hori. Batzuetan, laburpenak laburpen tentagarri modura adierazita egoten dira, besteetan ez. Ikasleei hori adierazi ondoren, aukera duzue liburuko atzeko azalean datorrena irakurriz, laburpena edo laburpen tentagarria den erabakitzeke.

Bestalde, laburpen tentagarriari dagokionez, argi utzi nahi dugu, laburpen tentagarri guztiek ez diotela egitura zehatz bati jarraitzen, baina eredu bat eman nahian, orrialde horretan duzuenaren alde egin dugu.

Laburpena galdera batekin bukatzen da, *Zer gertatuko ote da?*; galdera horri lotuz, talde txikietan, irudimena astinduz, ipuinean gerta daitekeena iragartzeari ekingo diogu eta, gero, talde handian aipatuko ditugu gure hipotesiak.

Ondoren (zeuek erabaki zenbat saiotan), irakasleak ipuina irakurriko die ikasleei eta, bukatzean, ipuineko gertakizunak formulatutako hipotesiekin alderatzeko edo ipuinari buruzko bestelako komentario, iritzi, etab. egiteko, elkarrizketa bultzatuko dugu.

10. Laburpen tentagarria taldean ekoizten

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: 5. lan-koaderno, 21. eta 22. or.

Tartetxo bat emango diegu ikasleei, 21. orrialdean agertzen den jarduera irakurtzeko, ulertzeko eta osatzeko. Ondoren, taldean, laburpen tentagarri honen egitura aztertuko dugu, eta egituraren zergatia ulertu ere bai. Gero, denon artean, gelako ipuin bat aukeratu eta irakurriko dugu, bukatzean, taldean, haren laburpen tentagarria egiteko. Unitatea landu bitartean, ikasleek liburutegiko nahiz etxeko ipuinak aztertu beharko dituzte, gustukoena aukeratu, irakurri eta haren laburpen tentagarria egin ostean, unitatea bukatu aurretik, euren gelako kideei aurkeztuko diete. Adieraz iezaiezue noizko egin beharko duten lan hori, hau da, zer epe daukaten, lasai eta euren erritmoan lan hori burutuz joateko eta egun horretarako prest izateko.

11. Gaiaren abestia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, abestiak, 7. pista

Gaiaren abestia den "Afrikan Egipto" entzungo dugu eta, taldean, unitatean agertzen den letra irakurriz, kantatzen saiatuko gara.

Orrialde honetan, Abestien CDari eta Musikako lan-koadernoari sarrera ematen dion ikonoak ikusiko dituzue. Musikako lan-koadernoaren bidez, lengoia musikala eta txirula lan ditzakezue.

12. Egiptoren kokalekua

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 12. eta 13. or.

Sekuentziaren bigarren blokea lantzen hasi aurretik, komenigarria da ikasnorabidera joan-etorriko bidea egitea, ikasleak jabe daitezen bloke honetan arlo bakoitzean landuko dutenaz.

Ikasleek, Txanela 1 eta 2 landu dituztenek, behintzat, ezaguna dute irudi bidezko historiaren ardatz kronologikoa. Antzeko irudiak erabiliz, oraingoan, eurek ezagutzen zuten ardatz horretan, Egipto txertatu dugu.

Beraz, bakarka, Morganen azpian idatzita dituzten garai bakoitzaren izena dagokion irudiaren azpian edo gainean idazteari ekingo diote. Gero, talde handian, elkarrizketa bultzatuko dugu, garai bakoitzari buruz gogoratzen duguna aipatzeko. Ondoren, Morganek aipatzen duen Kronos jainko hori zein zen galdetuko diegu ikasleei, badituzte hari buruzko erreferentziak, Matematikako CD-ROMean, Greziako gaian ere agertu zen...; hala ere, gerta daiteke ez gogoratzea; beraz, pistak eman diezazkiekezu: *Zein hitz ezagutzen duzue krono aurrizkiarekin hasten dena?*; edo, bestela, hiztegian bilatzeko aukera ere baduzue.

Elkarrizketaren ostean, munduko mapa gelara ekarri, eta mapak behatzeari ekingo diogu, ez ezer buruz ikastearen helburuarekin, baizik eta horiekin harremanetan jarri erabilpena lantzeko, hainbat herrialde eta herriren kokapena ikusteko eta euren arteko distantziaz jabetzeko (Egipto-Euskal Herria).

13. Nilo ibaia: "Maialenen egunerokoa" ipuinaren inguruko jarduerak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 14. eta 15. or./Irakurgaiak 3, 21. orrialdetik 25.era

Sekuentzian bloke berria hastera goazenez, ikasnorabidera begiratuko dugu berriro.

Ipuina irakurri aurretik, ulermen-estrategia batzuk martxan jarri eta motibazioa pizteko helburuarekin, jarduerak bakarka irakurtzeko eta burutzeko tartea eskainiko diegu ikasleei. Gero, ipuina irakurriko dute eta Ikaslearen liburuko 15. orrialdearen hasieran dagoen galderari erantzungo diote. Bukatzean, talde handian, elkarrizketa bultzatuko dugu osatu dituzten jardueren inguruan.

14. Hitz-errota

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.

Hasteko, taldean, gogora ekarriko dugu lehenengo unitatean praktikan jarri genuen hitz-errotaren funtzionamendua, prozedura, helburua, etab. (Gida, 3.1., 64. jarduera).

Gero, hitz-errotan proposatzen diren gaiak talde handian irakurri eta argituko ditugu, berehala hitz-errotaren prozedurarekin hasteko.

15. Entzunaldia

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: CDa, abestiak, 8. pista

Munduko musika sailetik, **EGIPTO**koa entzungo dugu, “**HUSSEIN EL MASRY**”-ren eskutik, **RA`ETAK** abestia.

Beti bezala, hasteko, gure konpositoreen txokoa martxan jarriko dugu.

- **Gure konpositoreen txokoa:**

- Konpositore eta, konkretuki, abesti honen inguruko informazioa lortzea zaila gertatuko zaizue, Interneten ere ezer gutxi dagoelako; hala ere, interesgarria izan daiteke informazioa bilatzeko saiakera egitea, zailtasun horretaz jabetzeko.
- Saiakera horren ondoren, bestelako jarduera bat egitea proposatzen dizuegu, egiptoar musikari buruzko informazioa bilatzea: musikaren garrantzia euren kulturaren, erabiltzen zituzten musika-tresna ohikoenak zein ziren, etab., gero, gure konpositoreen txokoa adierazteko “Egiptoko musika” izenburupean.
- Ondoren, musika entzuteari ekingo genioke. Lurrean etzanda eta begiak itxita ditugula, lehenengo eta behin, musika entzun eta gozatu egingo dugu. Gero, elkarrizketa bultzatuko dugu, entzundako musikaren inguruan: nolako izaera duen, gustuko dugun edo ez, erritmo aldetik nolakoa den, zer musika-tresna entzun ditugun, zer-nolako emozioak sortzen dizkigun musika mota horrek, nolako gorputz-mugimenduak egingo genituzkeen musika horrekin dantza egiteko, etab.

- **Antzezpena**

- Jarraian, talde txikietan, ikasleei antzezpen bat asmatzeko esango diegu. Antzezpen horretan egindako ekintza guztiek musikaren erritmoari jarraitu beharko diote.

Antzezpenaren istoriotxoak guk emandako hitzetan oinarrituta egon beharko du, hauek dira hitz horiek:

Nilo ibaia - festa - dantza - jainkoari eskaera - uholdea - krokodiloa - haurra.

Musika behin baino gehiagotan entzun beharko dute ikasleek nolabait haren erritmoa eta doinua barneratzeko eta haren gainean eraikitzeko euren antzezpena.

Behin talde guztiek euren antzezpena prest dutenean, beste taldekideen aurrean antzeztu beharko dute, hasi aurretik, hizlari edo narratzaile batek ikusiko duten antzezpenean gertatuko denaren berri emanda. Antzezle edo dantzariak egiptoarren moduan mozorro daitezke.

Nahi izanez gero, antzezpen horietatik guztietatik, edo denetatik gehien gustatu zaizuen aukeratu eta erakusketa egunean antzezteko aukera ere baduzue.

16. Nilo ibaia: uholdeak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 16. eta 17. or.

Ikasleek, bakarka, azalpen-testua irakurri, irudiei arretaz behatu eta azalpen horri dagozkion galderak erantzungo dituzte. Azalpen-testuan lohi hitza agertzen da. Lohia hitz polisemikoa da; beraz, interesgarria da hitz horren esanahiak hiztegian begiratzea eta gelan irakurtzea, testuinguruaren arabera komenigarria den esanahia aukeratzeko. Modu horretan, ikasleak konturatuko dira hitz berak esanahia bat baino gehiago izan ditzakeela eta aukeraketa egin behar izaten dela, betiere, balioetsiz zein izan daitekeen gure testuari ondoen egokitzen zaion definizioa.

Ondoren, talde handian, elkarrizketa bultzatuko dugu, Nilo ibaiak Egiptoko eguneroko bizitzan zuen garrantziaren inguruan. Gero, hitz-errota antolatuko dugu, ibaiak hizpide izanik; herriak ibai ertzetan, ibaien ustiaketa, kutsadura, etab. Hasi aurretik, ekar ezazue gogora hitz-errotaren helburua eta prozedura zein den.

17. Proiekturako Nilo ibaia eta larreak eraikitzen.

Lan egiteko era: TH

Maketa unitatearen bukaera aldera edota, bestela, unitatea landuz goazen heinean eraiki dezakegu, hau da, ikasitakoari zentzua emanaz, proiektua garatuz joan gaitzeko, apurka-apurka. Espazioaren arabera har dezakezue erabakia.

Nilo ibaia eta larreak eraikitzea proposatzen zaizue, orrialde honetan. Oinarri bezala, karto handi eta lodi bat erabil dezakezue edo, aukera izanez gero, egurrezko xafla bat, azkeneko horrek, mugikortasuna emango lioke maketari, erakusketa maketa osatzen ari garen tokitik kanpo balitz, hara eramateko aukera emango luke, maketak kalterik pairatu gabe.

Bestalde, ibaia aluminiozko, zelofanezko... paperez edo oihal urdin batez egin dezakezue. Inguruko larreak, berriz, plastilina edo buztinez eta belarrez edo lastoz eraiki ditzakezue. Etxeak buztinez nahiz kartoiz egin ditzakezue; gogoratu, horien kokapena tontorretan izaten dela. Inguruko lur-eremu guztia hondarrez edo gatz koloreztatuz betez gero, basamortu kutsua emango diozue. Ez ahaztu basamortuetan berezko landaredia izaten dela.

18. Euskal Herriko uholdeak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: DVDA

Bideoa ikustera joan aurretik, Euskal Herrian izandako uholdeen inguruko informazioa ikusi eta entzungo dutela adieraziko diegu ikasleei. Gero, aurre-ezagutzak ipiniko ditugu martxan, ikasleei galdetuz ea Euskal Herrian izandako uholdeei buruz informaziorik baduten (gurasoek kontatuta, telebistan ikusita...) eta, hala ez bada, nolakoak izango zirela uste duten eta zer onura edo kalte ekarriko lizkieketen gizakiei.

Bideoa ikusi aurretik, esan ikasleei uholdeen inguruko informazioa galdetzeko gurasoei, ea nola bizi izan zuten egoera eta nola egin zioten aurre.

Ondoren, bideoa ikusiko dugu, egoki ikusten duzuenean geldialdiak eginez, edozein argibide emateko asmoz. Bukatzean, ikusitakoaren inguruko elkarrizketa butzatuko dugu, Egiptoko uholdeak Euskal Herrikoekin erkatuz.

19. Egiptoko eguneroko bizimodua: ideia nagusia eta azalpen testutxoa

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 18. eta 19. or.

Atal berria hastera goazela ikusirik, ikasnorabidera joko dugu.

Orrialde honetan daukagun jardueraren helburua ideia nagusia lantzea da. Orain arte, hitzak sailkatu izan ditugu ideia nagusiaren irizpidearen arabera; orain, berriz, urrats bat aurrera emanik, esaldiekin saiaturako gara. Beraz, esandakoa ikasleei adierazi ondoren, ikasleek, bakarka, irudi bakoitza hobekien adierazten duen esaldia aukeratu eta bata bestearen atzean idatziko dituzte, azalpen-testutxoa osatuz. Azalpen-testutxo hori panel batean idatz dezakegu eta erakustaldian maketaren inguruan jarri, ikuslegoak aukera izan dezan egiptoarren bizimoduari buruzko informazioa irakurtzeko.

20. Xadufa eraikitzen

Lan egiteko era: Binaka/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or.

Hasteko, talde handian, xadufaren jarraibide-testua irakurriko dugu. Ondoren, binaka nahiz hiru edo lau pertsonako talde txikiak osatuz, bakoitzak zer material lortu eta gelara ekarriko duen adostuko dugu. Behin materiala gelan dugula, xadufa eraikitzeari ekingo diogu.

Xaduf horiek gure maketan jarriko ditugu ibaiaren inguruan.

21. Ideia nagusia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: 5. lan-koadernoan, 23. or./CD-ROMa

Ikasleek, irudietako ideia ongien adierazten duen esaldien aukeraketan treba daitezen, bakarka, lan-koadernoko 23. orrialdeko jarduera egingo dute. Aukeraketa zuzena eginez gero, egiptoarren bizitzari buruzko azalpen-testutxoa osatuko dute. Bukatzen dutenean, zuzenketa egiteari ekingo diogu, talde handian, esaldien aukeraketak justifikatuz. Nahi izanez gero, aukera duzue azalpen-testutxoa proiektuan erabiltzeko.

22. Kontzeptu-mapa

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: 5. lan-koadernoan, 24. or.

Hasteko, tarte bat emango diegu ikasleei kontzeptu-mapari buruzko informazioa irakur dezaten. Gero, talde handian, jarduera irakurri eta kontzeptu-mapa zer den eta informazioa nola antolatzen duen ulertzeari ekingo diogu.

Kontzeptu-mapa informazio garrantzitsuena modu labur eta argian antolatzeko erabiltzen den tresna da; bertan, kontzeptuak eta horien arteko loturak irudikatzen edo islatzen dira. Kontzeptuak hitz bakar baten bidez edo ahal den modurik laburrenean idatzen ditugu. Loturari dagokionez, berriz, gaztelaniaz ez bezala, galdera modura egituratuta daude, euskararen gramatikari eta esaldiaren egituraketari kalterik ez egiteko asmotan.

Behin argibideak ulertuta eta jarduera burututa dugunean, aurre-ezagutzetako orrialdera joko dugu, eta, bertan, Egiptori buruz egin genuen kontzeptu-mapa arbelean kopiatuko dugu. Orduan, zera galdetuko diegu ikasleei:

- *Zer da hau?* Kontzeptu-mapa bat. *Irakurri dugunaren arabera, zer da kontzeptu-mapa honek adierazten duena?* Kontzeptuak. *Eta zer da falta duena?* Kontzeptuen arteko loturak.

Orduan, denon artean lotura horiek idazten saiatuko gara, gogoratu galdera modura formulatzearen aldeko aukera lehenetsi dugula.

Prozedura honen ulermena indartzeko, oso egokia da kontzeptu-mapa hau (baita beste unitateetan ere) gauzak ikasi ahala osatuz joatea eta, gaia bukatzean, kartulina handi batean idatzi eta maketaren ondoan jartzea erakusketa egunean.

23. Errezeta: Egiptoar gozokia

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak 3, 26. or.

Egiptoar errezeta erraz hau gelan bertan egiteko aukera duzue. Beraz, irakur ezazue talde handian eta aurreikus ezazue zer osagai beharko dituzuen, ikasle bakoitzak zer ekarriko duen etxetik eta noiz egingo duzuen. Errezeta gustuko izanez gero, erakusketa egunerako ere presta ditzakezue horrelako gozo batzuk, ikuslegoari eskaintzeko.

24. Non eta nola bizi ziren egiptoarrak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 20. eta 21. or.

Irudiei behatu eta azalpen-testuak irakurri ondoren, ikasleek, bakarka, 20. orrialdeko galderei erantzun beharko diete; gero, talde handian, elkarrizketa bultzatuko dugu galdera horien inguruan.

Ondoren, 21. orrialdera joko dugu.

25. Pilotak egiten

Lan egiteko era: Bakarka

Guk ere, jolasteko, arrozeko pilotak egingo ditugu.

Pilota bat egiteko, bi puxika eta katilu bete arroz behar ditugu, baina kontuan izanik puxikak erraztasunez apurtzen direla, komenigarria da gehiago izatea eskura.

Puxika bat hartu eta guraizeekin lepoa moztuko diogu; gero, arrozaz beteko dugu. Behin goraino arrozaz beterik dagoenean, beste puxikari lepoa kendu eta haren barruan sartuko dugu arrozaz beteriko puxika; betiere, arroza sartu dugun tokia estalita geratzen delarik. Kolore ezberdineko puxikak erabiliz gero, gure pilota askoz ere politagoa geratuko zaigu. Ikasle bakoitzak pilota bat baino gehiago eginez gero, aukera duzue malabarismoak praktikatzeko: hasteko, pilota birekin, eta aurrerago, hirurekin.

Nahi izanez gero, pilota horiekin jolas dezaketen jolasak asma ditzakezue eta praktikan jarri.

26. Elkartasun-jolasa: Hitz-katea

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 21. or.

Hitz-katea izeneko elkartasun-jolas honek komunikazioa, kooperazioa eta ahozko sormena garatzea ditu helburu.

Hasteko, ikasleei tarte bat eskainiko diegu unitatean azaltzen den elkartasun-jolasaren azalpena irakurtzeko.

Jolasarekin hasi aurretik, lurrian jesarriko gara, korro bat eginez, denok denon aurpegiak ikusteko moduan eta, ondoren, elkartasun-jolasa zer den eta zertan datzan gogora ekarriko dugu. Gero, jolasari buruzko zalantzak argituko ditugu, jarraian, guk eraikitako pilota bat hartu eta jolasari ekiteko. Bukatzeko, jolastean bizi izandako esperientzia (sentimenak, zailtasunak...) adierazteko, elkarriketa bultzatuko dugu:

- *Dibertigarria al da aurreko lagunak esandako hitzarekin zerikusia duen beste bat pentsatu eta hain azkar esan behar izana?*
- *Zaila edo erraza suertatu zaizue? Nolako sentimenduak sortzen dizkizue jolas honek? (Urduritasuna, arintasuna...)*
- *Hitz-kate honen lehenengo hitzak eta azkenekoak ba al dute zerikusirik?*
- *Zenbat gai ezberdin aipatu dira?*
- *Jolas honetan hitzen batek edo harritu al zaituzte? Zergatik?*

27. Pilota jokoaren historia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak 3, 27. or./Material osagarria/5. lan-koadernoa, 25. or.

Hasteko, bakarka eta, gero, talde handian, pilotaren jokoaren historia irakurriko dugu. Gero, ikasleek, bakarka, lan-koadernoko 25. orrialdeko jarduera burutu beharko dute irakurritako informazioaren arabera, hau da, pilota jokoaren historia kronologikoki antolatu beharko dute.

Nahi izanez gero, ikasleek mintza-praktikan treba daitezen, lan-koadernoko orrialdea aurrean dutela, talde txikietan (hiruzpalau lagunekoetan), azal diezaietela euren taldekideei pilotaren historiari buruz irakurri eta gogoratzen dutena, betiere, pilotari buruz ezer ez dakien lagun bati informazio hori eman behar diotela imajinatuta. Eman iezaiezue ahozko ereduren bat.

28. Euskal pilota

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: CDa, abestiak, 9. pista

Mikel Mendizabalen “Euskal pilota” bertsoa entzungo dugu talde handian, musika eta erritmoaz gozatuz. Ondoren, irakasleak abestiaren letra diktatuko die ikasleei. Gero, letra arbelean idatzirik, ikasleek autozuzenketa egiteari ekingo diote. Beharazi lehen bertsoa oinetan, bustiduraren idazkera (ina); bestetik, hainbat “s” eta “z” dituzue eta baita “h” letra ere oso maiz azaltzen zaizkigun bi hitzetan (handik, hurbil).

Bukatzean, letra aurrean dugula, abestu egingo dugu.

Aspaldi naiz jaioa,
aspaldi egina,
gauza txikia baina
ibiltari fina,
nire baitan ikusi
daitezke jakina,
munduko bi aldeak:
gorri ta urdina,
batzuen poza baita
besteen samina. (bis)

Saskian egoten naiz
apal eta umil,
handik ateratzean
ezin egon trankil,
atzera ta aurrera
etengabe nabil,
txalo eta txistuak
denak dauzkat hurbil,
nire mundu txikia
bueltakea baitabil. (bis)

29. Egiptoko hezkuntza eta hizkuntza

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.

Talde handian, azalpen-testutxoa irakurri eta bertan adierazten den informazioari buruzko iritzia emateko, elkarrizketa buktzatuko dugu. Gero, iritzi-errota irakurriko dugu, ikasleak jabe daitezen etxean jaso beharko duten ahozko informazioa zeren ingurukoa izango den. Adieraz iezaiezue ikasleei, ahoz jasotako informazioa inon idazten ez bada, gerta daitekeela hurrengo egunerako zerbait ahaztea; horregatik, komenigarria dela, etxekoek informazioa luzatzen dioten bitartean, nota edo apunteren bat hartzea, hitz klabe bat, esaldi esanguratsu bat, etab.

Behin informazioa bilduta dugunean, iritzi-errota martxan jarriko dugu.

Bukatzean, munduan eskolara joan gabe txikitatik lan egitera behartuta dauden haurren egoerari buruz mintzatu eta gure iritzia emateko aukera izango dugu.

30. Eskribak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.

Talde handian, eskribei buruzko azalpen-testua irakurriko dugu, eta bertan ulertzen ez diren eta ager daitezkeen hitzak argituko ditugu. Azalpen-testuaren bukaeran, Rosetta harria aipatzen da; bila ezazue horri buruzko informazioa, galdetu ikasleei ea non begira dezaketen zer eta nolakoa den harri hori jakiteko. Eskribaren atzeko aldean agertzen da harri horren irudia, ez eman ikasleei pistarik, lortutako informazioaren arabera jabetuko dira.

Ondoren, taldean, elkarrizketa bultzatuko dugu, ondo idaztearen eta irakurtzearen garrantziari buruz ikasleek duten iritziaren berri izateko, euren erantzunak justifikatzeko eskatuko diegu.

Gero, ikasleek, banaka, orrialde horretako hieroglifoak deszifratu beharko dute. Terminologiari dagokionez, argibide modura esan beharra dago, “hieroglifo” hitza izena dela, eta “hieroglifiko” adjektiboa. Hau da, orrialde horretan, hieroglifo bat agertzen zaie ikasleei. Idazkerari, berriz, idazkera hieroglifiko deritzaio.

Bestalde, hieroglifoetan, egiptoarrek, norabideari zegokionez, bertikalki nahiz lerro horizontalean idazten zuten. Lerro horizontalari dagokionez, animaliek begiratzen zuten tokitik hasi behar zen irakurtzen. Beraz, ikasleek ikur bakoitzari letra bat

egoztearekin ez dute nahikoa izango hieroglifoa deszifratzeko. Adieraz iezaiezue ez dutela Rosetta harria beharko, baina bai euren garuna astintzea deszifratzea lortzeko. Euren kabuz ez badira ondorio batera iristen, adieraz iezaiezue oso garrantzizkoa dela animaliek norantz begiratzen duten behatzea. Hala ere, ez badute gakoa aurkitzen, esan animaliek ezkerreara begiratzen badute, eskuinetik ezkerreara irakurri behar dela, eta animaliek eskuinera begiratzen badute, ezkerretik eskuinera (hau da gure betiko eran) irakurri behar dela.

Bukatzeko, ikasle bakoitzak bere izenari dagozkion irudiak marraztu beharko ditu, irudien norabidearen garrantzia ahaztu gabe.

31. Aintzinako eskribaren egunerokoa

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka

Materiala: 5. lan-koadernoa, 26. or./CD-ROMa

Izan aditza, aspektu burutuan (naiz, da...) eta ez-burutuan (ari naiz), bai orainaldian eta baita lehenaldian ere, lantzea du helburu jarduera honek. Burutzen hasi aurretik, talde handian, hasieran eta gero, talde txikietan, aditza ahoz lantzeko jolas ariketatxo batzuk egin ditzakezue, hala nola irakasleak esaldiak orainaldian esan eta ikasleak lehenaldian errepikatu, etab.

Ondoren, ikasleek, bakarka, lan-koadernoko jarduera burutuko dute. Bukatzen dutenean, idatzitakoa berrikusi eta egoki diren zuzenketak egingo dituzte. Gogora iezaiezue eskribek garrantzi handia ematen ziotela letra garbia eta argia idazteari eta, orain, euren abileziak erakutsi behar dituztela, eskriba izateko balio ote duten jakiteko.

CD-ROMean, hainbat dira aditza lantzeko aurkituko dituzuen jarduerak, ikasleek, bakarka edo binaka, osa ditzaketenak. Nahi izanez gero eta aukera eduki, proiektagailu digitalarekin, aditza lantzeko jarduerak talde handian egiteko aukera ere baduzue.

32. Idazkera hieroglifikoa eta hieratikoa. Puntuazio-arauak eta ortografia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 24. eta 25. or.

Tarte bat emango diegu ikasleei lehen orrialdeko azalpena eta jarduerak irakurri eta osatzeko. Gero, talde handian berrikusi eta zuzenketak egiteari ekingo diegu. Maiuskularen erabileraren inguruko arauak ondorioztatuko ditugu guztion artean.

Ondoren, 25. orrialdera pasatuko gara. Azalpenak hizkuntzari buruzko informazioa ematen digu eta, gainera, testu horren gainean ortografiaren behaketa egingo dute hurrek, eta, ondoren, diktaketa bidez, testua berriidatziko dute.

Jarduera hauekin puntuazio-arauen berri jasotzea eta ortografiari buruzko kezka piztea nahi dugu ikasleengan, horien garrantziaz jabe daitezen.

Zuzenketak bukatu ondoren, Argitxok dakarkigun Artzeren idazkia irakurriko dugu eta elkarrizketa bultzatuko, gure hizkuntzaren egoerari buruzko hausnarketa soziolinguistikoa egiteaz gainera, guk euskararekiko dugun jarrera azalduz. Interesgarria da kartulina polit batean idazki hau idaztea eta gelako horma batean nahiz ikastolako beste espazio batzuetan zintzilikatzea.

33. Aditza: Nor-nori nork

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: 5. lan-koadernoan, 27. or.

Maidarren globoan irakurri bezala, askotan, euskarari astindu ederrak ematen dizkiogu, eta ikasleen artean ohikoa izaten den akats bat, nor-nork eta nor-nori-nork aditzen artean sortzen den nahasmena izaten da. Ikasleek bi aditz mota horien erabilpena zuzena zein den jabetzeko, bakarka, jarduerak burutzeari ekingo diote.

Gogoratu CD-ROM-ean aditza lantzeko jarduera anitz duzuela.

34. Euskal herrian euskaraz!

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: 5. lan-koadernoan, 28. or.

Ikasleek, bakarka eta hainbat estrategia erabiliz (testuinguruaren arabera hitza aukeratu, errimaren arabera, edo, eliminazioz), lan-koadernoko abestia osatu beharko dute. Behin osatua dagoenean, denok abesteari ekingo diogu.

35. Faraioia eta Egiptoko gizartea

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 26. eta 27. or.

Atal berrian murgildu aurretik, ikasnorabideari begiratuko diogu.

Tartetxo bat emango diegu ikasleei bi orrialde hauetan dagoen informazioa irakurri, ulertu eta jarduera burutzeko. Gero, denon artean, azalpen-testua berriro irakurri eta jarduera zuzentzeari ekingo diogu. Bukatzeko, elkarrizketa bultzatuko dugu, ikasleei galdetuz gizarte-mailakatze horrek zer dakarkien gogora. Bigarren mailan, Erdi Aroko gaia landu zutenean, garai hartako Europan gizartea nola zegoen banatua eta antolatua ikusi zuten. Lan pixka bat bada ere, liburu horiek gelara ekartzeko eskatzea komeni da, garai eta zibilizazioen arteko konparazioak egitea —berdintasunak eta ezberdintasunak ahoz aipatuz—, oso interesgarria eta formatzailea baita.

36. Egiptoko jainkoak eta eraikinak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 28. or.

Atal berria dugunez, joan-etorria egingo dugu ikasnorabidera.

Tartetxo bat emango diegu ikasleei azalpen-testua irakurri, irudiei behatu eta jarduera burutzeko. Jarduera honek hiztegiaren erabilpena eskatzen duenez, aurreikus ezazue gelakoarenaz aparte beste batzuk ere beharko dituzuela eta ondoren datorren jarduera aurretik egitea komeni dela. Bukatzerakoan, talde-elkarrizketa bultza dezakezue jardueraren inguruan. Bigarren mailan, Greziako gaia landu zutenean, haiek ere jainkoak gurtzen zituztela ikusi zuten, agian jainkoren baten izena oraindik ere ezagutuko dute, eta galde iezaiezue ikasleei ea baten bat gogoratzen duten. Bila ditzatela haien izenak hiztegian, eta, gero, konpara itzazue, greziar jainkoen eta egiptoarren jainkoen mende gauza berberak zeuden edo ez jakiteko.

37. Alfabetoaren arabera ordenatzen

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian

Materiala: 5. lan-koadernoan, 29. or./CD-ROM-a

Hiztegia erabiliko dutenez, horretan trebeak izateko, bakarka, hitzak alfabetoaren arabera ordenatuko dituzte lan-koadernoan.

CD-ROM-ean, hitzak alfabetoaren arabera ordenatzen ikasteko, hainbat jarduera daude. Gogoratu ikasleek, bakarka nahiz binaka, egin ditzaketela ariketa horiek eta, proiektagailu digitala erabiliz gero, talde handian lantzeko aukera ere baduzuela.

38. Momiak eta heriotzaren ondorengo bizitza

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or.

Hasteko, ikasleek, bakarka, azalpen-testua irakurri eta jarduera osatzeari ekingo diote. Talde handian- sinonimoak ondo aukeratu ote dituzten ziurtatuko dugu. Adierazi hitz bakoitzari dagokion sinonimoa buruz ikastea komeni zaiela, ondoren, testua berrirakurtzen dutenean, hitza automatikoki ordezkatzeko. Hainbat haurrek irakurketa hori —hitza bere sinonimoarekin ordezkatzuz— ahots ozenean egin dezakete, euren trebezia adierazteko. Gero, talde handian, elkarrizketa bultzatuko dugu momien inguruan, zer dakigun horiei buruz, ea noizbait baten bat ikusi dugun (pelikuletan, marrazki bizidunetan...), etab. Azalpen-testuaren ondoan, Tutankamon faraoiaren hilobian aurkitutako harribitxiak inkrustatuta dituen urrezko maskara eta Kakalardoak (egiptoarrentzat sakratua zen sinbologia) duen eraztuna agertzen dira. Interesgarria da bi horien inguruko informazioa liburuetan edo Interneten bilatzea. “Tutankamonen madarikazioa” izenarekin ezagutzen den kondaira oso polita da.

Kakalardoak: Egiptoarrentzat sakratuak ziren. Animalia hura irudikatzen zuen jainkoa Jepri zen. Babesaren sinbologia zen kakalardoak; horregatik, bitxietan, tresnerian, etabarretan ikus zitezkeen haren irudia.

39. Piramideak eraikitzen

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Material osagarria

Ikasleek, bakarka, material osagarrian dituzten piramideen txantiloak erabiliz (nahi izanez gero, fotokopiak egin eta hainbat neurritan egiteko aukera eskaini, lehenengoan, ziurrenik, ez baitzaie oso ondo aterako), piramideak eraikiko dituzte. Piramideak faraoien hilobiak zirela jakinik, paperezko piramide baten alde bat irekita uztea edo moztea ere baduzue eta, bertan, buztinez nahiz plastilinaz egindako momia txiki bat, harribitxiak eta janaria sar ditzakezue, benetako piramideetan egin ohi zuten bezala.

40. Nitokrisen sandaliak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Irakurgaiak 3, 28. orrialdetik 31.era/5. lan-koaderno, 30. or.

Gaiaren ipuina taldean irakurriko dugu, ikaskuntza elkarkaria praktikan jarritz.

Ikaskuntza mota horren xedea zera da: ulermenaren eraikuntza, baina irakurketari jolas-itxura ematen dionez, bide batez, haurren irakurketarekiko motibazioa erraztu eta pizten du.

Irakurketa mota horrek, bi helburu nagusi ditu; testuaren ulermena eta irakurketa-estrategiak era esplizituan eta testuinguru naturalean lantzea. Beraz, ulermenaren bidez ezagutza bereganatzeaz gainera, ikasleak, irakurketaren estrategien funtzioaz ere jabetu ahal izango dira. Jarduera hau gauzatzeko modurik egokiena, talde txikietan esperimentatzea da; hala ere, bigarren aldia bakarrik denez, talde handian egitea proposatzen dizuegu.

Testuaren arabera ulermena ziurtatzeko erabiltzen diren estrategiak askotarikoak izaten dira, estrategiak modu esplizituan lantzeko rol bati egotziko dizkiogu; honako hauek dira, edozein dela ere aurrean dugun testua, martxan jarriko ditugun rolak: irakurlearen rola, ikertzailearena, galdetzailearena, kazetariarena, asmatzailearena eta jakintsuarena.

- “Irakurlea” (dekodifikazioa): Taldekide bakoitzak bere liburuan irakurketari jarraitzeko aukera izango badu ere, irakurle ofizial horrek egingo du ozeneko irakurketa (txanda daitezke).
- “Ikertzailea” (argibideak): Ulertzen ez duen hitzen bat entzuten duen bakoitzean, irakurketa eten egingo du eta, testuingurua kontuan izanik, hitz horrek zer esan nahi duen argitzen saiatuko da. Erantzuna asmatzeko gai ez bada, beste taldekide bat saia daiteke. Denen artean hitzen bat argitzeko gai ez badira, ikertzaileak bakarrik edo irakaslearen laguntzaz, hiztegian aurkitutako definizioa taldekideei irakurriko die.
- “Galdetzailea”: Falta diren eta testua ulertzeko behar diren datuei buruz galdetuko du.
- “Kazetaria” (laburpena edo sintesia): Irakurketa bukatzean, irakurritakoaren laburpena egin beharko du.
- “Asmatzailea”: Testuaren hariari jarraituz, nola bukatuko den asmatu edo iragarri beharko du, bukaerara heldu aurretik.
- “Jakintsua”: Irakurritakoa garrantzitsua den beste informazio batekin erlazionatuko du, testua errazago ulertzeko asmoz.

Gogora ekar itzazue rolak eta baita bakoitzaren funtzioa ere. Jarraian, ekin irakurketari. Irakurleak ozenki irakurtzen duen bitartean, gainerako ikasleek isileko irakurketa egingo dute, euren irakurgaietako testuari jarraituz. Norbaitek hitz ezezagunen bat entzutean, irakurketa eten egingo du eta “Galdetzaile lana” beteko. Denen artean hitz horren esanahia argitzen saiatuko gara. Bi rol horiek eta baita “Kazetariarena” ere erraz ulertu eta praktikan jartzeko gai izango dira; besteak betetzea, agian, zailago gertatuko zaie; horregatik, oraindik ere, irakasleak berak eman beharko die eredia, irakurritakoa beste informazio batekin lotuz, testuan falta den eta garrantzitsua den informazioa erantsiz, etab.

Esperientzia praktikan jarri eta burutu ondoren, talde handian, horri buruz hitz egingo dugu: gustukoa izan duten, zer zailtasun izan dituzten, rolak argi gelditu diren, paperen bat ondo ez betetzeak zer suposa dezakeen, zein den rolik zailena eta zergatik... Elkarrizketa horrek, irakurketari dagokionez, irakasleoi pista asko eman diezazkiguke, ikasle bakoitzak dituen zailtasunak agerian geldituko baitira.

Bukatzean, ikasleei ipuina bakarka irakurtzeko aukera emango diegu eta, gero, lan-koadernoan ipuinari buruz duten jarduera burutu beharko dute.

41. Laburpen tentagarria ekoizten

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: 5. lan-koaderno, 30. or.

Gogoratu laster ikasle bakoitzak berak aukeratutako liburuaren laburpen tentatzailea osatu eta gelakideei aurkeztu beharko diela. Horregatik, irakurri berri duzuen “Nitokrisen sandalia” ipuinaren laburpen tentatzailea taldean egingo dugu, azken trebaketa moduan. Gero, orrialde horretan agertzen den orria eredu dutela, ikasle bakoitzak berak egoki ikusten duenean, folio batean, eredu kopiatu eta bere laburpen tentagarria eratuz joango da, aurkezpena egiteko egunean bere lana prest izan dezan.

42. DVDA: Egiptoko eraikin handiak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: DVDA

DVDA ikusi aurretik, komenigarria da ikasleek jakitea zer ikusiko duten DVDan eta zer jarduera mota egin beharko duten ondoren, edozein dela ere informazioa bereganatzeko erabiliko den iturria, helburuaren arabera arreta gauza batean edo bestean jartzen delako, eta hori da, hain zuzen ere, ikasi behar dutena, komeni zaien informazioa hautatzen.

Horregatik, DVDA ikusi aurretik, utz iezaiezue tarte bat, bakarka, liburuko 30. eta 31. orrialdeak irakurri eta egin beharko duten lana zer motatakoa den ulertzeko.

Ondoren, ikus ezazue DVDA.

43. Egiptoko eraikin handiak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 30. eta 31.or.

DVDan jasotako informazioa kontuak izanik, ikasleek marrazki bakoitzean agertzen den eraikinaren izena eta eraikin bakoitzari dagokion azalpen-testutxo ekoitziko dute. Jarduera hasi aurretik, komenigarria da talde handian aipatzea zein den eraikin bakoitzaren inguruan entzun dugun informazioa eta nola adieraz dezakegun modu egokienean idatziz.

44. Buztinezko piramidea eta obeliskoa eraikitzen

Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka/Binaka/Talde handian

Lan hau burutzeko, taldekatze aukera guztiak dituzue. Obeliskoa eta piramideak maketan jartzeko badira, nahikoa da obelisko bat eta hainbat piramide (arruntak eta eskalonatuak) egitea. Neurria, maketaren araberakoa izango da. Hala ere, oso normala da eta baita egokia ere haur guztiek beren piramidea eta obeliskoa egin nahi izatea. Forma zuzenak (erpinak, ertzak...) lortzeko, lagungarri izango zaie egurrezko xafla batzuk erabiltzea. Forma bukatu ondoren, puntzoi batekin, piramidearen harriak markatu.

45. Txisteak

Lan egiteko era: Bakarka/Tale handian

Materiala: Irakurgaiak 3, 32. or.

Ikasleek, bakarka, hiru txisteak irakurriko dituzte, gozatzeko.

Gero, talde handian, txisteen inguruko hausnarketatxo bat egin dezakegu: txiste bakoitzaren ironia zein den azpimarratzen saiatuko gara, zerk eman dion txisteari grazia edo umore puntua, alegia.

Bestetik, puntuazio-zeinuei (elkarrizketa adierazten duen gidoia, galdera-ikurrak, harridura-ikurrak...) so egiteko parada ona dugu hau. Ikusarazi, txistea ondo ulertzeko eta ondo kontatzeko, oso garrantzikoa dela behar bezala (puntuazio-ikurrak, ortografia) idatzita egotea. Ondoren, tarte bat emango diegu ikasleei, puntuazio-ikurrei eta ortografiari arreta handia jarritz, berriro ere hiru txisteak irakur ditzatean, jakinik, gero, txiste horietariko baten diktaketa egingo zaiela, beren koadernoan zuzen idatz dezaten.

Diktaketa bukatzean, berrikuspena eta autozuzenketa bultzatuko ditugu.

Bukatzeko, nola ez, "txisteen unea" saioari tarte egingo diogu, eta elkarri txisteak intonazio eta keinu egokiak erabiliz kontatuko dizkiogu.

46. Artelanak

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.

Artelanei dagokien testua irakurri ondoren, ondo behatu eta, egiptoarren moduan, gure lanak egiteari ekingo diogu.


Hiru proposamen dituzue jarraian, hainbat egunetan edo saiotan egitekoak.

1. Profila

Gu ere saiatuko gara profilak marrazten. Gure lagun batena edota imajinarioa izan daiteke, edozeinena, alegia. Horretarako, karratu batetik abiatuko gara. Karratua marraztu ondoren, arkatzez horizontalki antzekoak izango diren hiru zatitan banatu karratua. Gero, marra batez, bertikalki bitan zatitu karratua. Horrela, marrazkia proportzionatua irtengo zaigu. Horizontalki banatutako goiko zatian, kopeta ipini. Erdikoan, sudurra. Bi tarte horiek banatzen dituen marraren gainean, bekaina eta haren azpian, begia. Hirugarren zatiaren, behekoaren, erdialdetik pixka bat goraxeago, lerrotxo horizontal bat marraztu eta haren gainean, ahoa (ezpainak) adierazi. Erdiko tarte horizontalean, zehazki marra bertikalaren gainean (karratuaren erdi-erdian), belarria ipini (ikus marrazkia).

Hala ere, kontuan izan karratua erreferentzia besterik ez dela, eta zatiren bat handiagoa edo txikiagoa egin behar izanez gero, ez dagoela inolako eragozpenik. Marrazkiak dauka garrantzia eta ez karratuak!

Animalia baten profilarekin ere ausart gaitezke.



Oharra: Marrazkia ez da batere zehatza, baina testuan esplikaturakoa argitzeko baliagarria delakoan jarri dugu.

2. Baxu-erliebea

Lehenago marraztu ditugun profilak edo eta besteren bat (batzuk) buztinezko xafla baten gainean kalkatu, ingurutik buztina kendu —zotza erabiliz— eta irudiaren hainbat lekutan metatuz, baxuerliebea egingo dugu.

Hasteko, buztinezko xafla bat egin. Horretarako, zurezko molde (markoa) erabili, buztin xaflak azalera guztian lodiera bera eduki dezan. Molderik ez badugu, bi listoi zapal (lodiera berekoak) erabil ditzakegu eta arrabolarekin buztina poliki-poliki lodiera horretara egokitu. Noizbehinka, buztinari buelta eman behar zaio, azpitik itsatsita gera ez dadin.

Xafla horren gainean, profila markatu (burukoa edota gorputz osokoa) eta eskura dauzkagun elementuekin, zotzekin (arruntak eta izozkienak...), puntzoiekin, etabarrekin, bere gainaldea eralda dezakegu, erliebea emateko buztina hainbat tokitatik kenduz eta ebakidurak, zulotxoak eta abar eginez, behar ditugun ehundurak-eta adierazteko (ilea, arropa...).

3. Bustoa

Ea gu ere egiptoarrak bezain trebeak garen eskulturak egiten. Hurrei adierazi, profila marrazteko erabili dituzten proportzioak kontuan hartzeko bustoa egiteko orduan.

Burua izango den buztinezko bolatxo bat egin; horretarako, esku ahurrak erabiliz. Ondoren, zilindro forma izango duen beste zatitxo batekin, lepoa modelatu eta buruari itsatsi eta, azkenik, proportzioak errespetatzen saiatuz, sudurra eta belarriak, etab. egiteko, buztin-zatiak erantsiz eta ahoa eta begiak modelatuz, buztina kenduz..., osatu bustoa.

47. Kleopatraren deskribapena aztertzen

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 33. or.

Xabierren globoa irakurri, eta Kleopatra nor den galdetuko diegu ikasleei eta baita emakume horri buruz zerbait ba ote dakiten ere. Ondoren, haren deskribapena irakurriko dugu taldean, ulertzen ez diren hitzak denon artean inferituz edo, bestela, hiztegian bilatuz.

Irakurtzen dugun bitartean, ulermenezko beste estrategia bat landuko dugu, hau da, irakurritakoa ezagutzen dugun beste informazio batekin lotzen saiatuko gara, nahiz eta horrek irakurketa etengabe moztea ekarriko duen.

Behin testua ulertu ondoren, tarte bat utziko diegu ikasleei berriro, bakarka eta jarraian, deskribapena irakurtzeko eta Kleopatraren irudiarekin alderatzeko.

Gero, galdetu egingo diegu ikasleei zer testu mota den irakurri duguna. Iaz bigarren mailan sekuentzia polita landu zuten testu mota honen inguruan; beraz, deskribapenaren inguruan dakigun guztia gogora ekarriko dugu: funtzioa, egitura, atal bakoitzean adierazten dena, adjektiboen erabilpena...

48. Erranak erran: Lore bakoitzak bere arantza

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 3, 33. or./CDa, 10. pista

Kleopatra greziarra eta Marko Antonio jeneral erromatarra ezkondu egin ziren, baina maitaleak ziren garaian elkarri piropoak eta bestelakoak esateko ohitura oinarritu eta bertsoak osatu ditu. Ikasleak, bakarka, bertsoak irakurri eta piropoak identifikatu beharko ditu, baina hori egin aurretik, elkarrizketa sortuko dugu:

Irakurgaietan, Kleopatra eta Marko Antonioren arteko elkarrizketa bertso modura azaltzen zaizkizue; bertan, piropoak agertzen dira.

- Ba al dakizue zer diren piropoak?

- Eta zer funtzio duten? Hau da, zertarako esaten diren?

- Zuek piropoak esateko ohiturarik ba al duzue? Zein esaten dituzue edo ezagutzen?...

Behin bertsoko piropoak identifikatuta dituzuela, horien esanahia argitzen saiatuko gara. Nahi izanez gero, piropoen zerrenda ere osa dezakezue.

Bukatzeko, bertsoaren letra aurrean dugula, entzuten dugun bitartean, abesteari ekingo diogu. Letra buruz ikasten badute, musika jarritz interpretatzeari ere ekin diezaioke ikasleek, maitaleen artean egin daitezkeen aurpegi-keinu eta gorputz-adierazpenez lagunduta.

49. Deskribapenaren sekuentzia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: 5. lan-koadernoan, 31. orrialdeetik 34.era

Lan-koadernoko orrialde hauetan, deskribapena lantzeko sekuentzia duzue: deskribapenaren funtzioa, egitura, atalak, erabiltzen diren hitz motak (adjektiboak...), etab.

Hasteko, ikasleek, bakarka, Kleopatraren deskribapena irakurri ahala, haren irudia egingo dute, horrek lagunduko baitie azalpenekin batera hobeto ulertzen zein den deskribapenaren funtzioa eta egitura. Ondoren, bakarka, Marko Antonioren deskribapena ordenatu eta, jartzen duenaren arabera, pertsonaiaren marrazkia egingo dute (Lan-koadernoan espazio txikia dagoenez, folio txuri batean erosoago egingo dute). Erakuts diezazkietela elkarri egindako marrazkiak, norberak testua nola interpretatu duen ikusteko. Gero, taldean, elkarrizketa bultzatuko dugu egindako jardueren inguruan.

Jarraian, baina oraingoan binaka jarrita, 33. eta 34. orrialdeetako jarduerak egiteari ekingo diote; bukatzean, berriro ere taldean, elkarrizketa bultzatuko dugu egindakoaren inguruan.

50. CD-ROMa: sinonimoak, antonimoak...

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka/Talde handian

Materiala: CD-ROMa

CD-ROMean, deskribapenetan hain beharrezkoak diren adjektiboak, (sinonimoak eta antonimoak) lantzeko aukera duzue. Gogoratu ikasleak bakarka nahiz binaka buru ditzaketela ariketa horiek eta. proiektagailu dugutala erabiliz gero, talde handian lantzeko aukera ere baduzuela.

51. Kartulinatan

Lan egiteko era: Talde handian

Beste testu mota bat azaldu zaigunez, haren izaerari buruz ikasitako guztia kartulina batean idatz dezakezue, “deskribapena” izenburupean. Gero, gelako hormaren batean zintzilikatu eta begi bistan izan deazkegu haren beharra dugunean.

52. Deskribapenak egiten

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: 5. lan-koaderno, 35. or.

Jarduera honetan, ikasleek bakarka, nahi duten pertsonaren deskribapena egingo dute, ikasitako guztia bertan aplikatuaz.

53. Elkartasun-jolasa

Lan egiteko era: Talde handian

Jolas honen helburua, komunikazioa eta ikasleen autobaieztapena lantzea da.

Jolaskide bakoitzak bere burua deskribatu beharko du folio batean edo txartel moduko batean, bertan idatziko ditu bere ezaugarri fisikoak, gaitasun baikorrak, zaletasunak, normalean janzten dituen arropak, edo bestelako datu batzuk, hala nola anekdotak, etab., betiere bere identifikazioa erraztuko duten pistak emanez. Jolaskideek ezin dituzte ikusi besteak egiten ari diren txartelak, gero asmakizunetan jolastu beharko baitute. Txartel guztiak prest daudenean, lau tolestura eginda, zaku edo poltsa baten barruan sartuko ditugu. Jolasa hastean, ikasle bakoitzak txartel bat hartuko du. Denek esku artean txartel bat dutenean, bakoitzak berea irakurtzeari ekingo dio. Jolaskideren batek, irakurritako deskribapenaren arabera, argi duenean nor den bere deskribapeneko laguna, berarengana joango da eta bere sinadura deskribapenean jartzeko eskatuko dio. Txartel guztiak sinatuta daudenean, jolasa bukatu egingo da.

Jolasarekin hasi aurretik, beti bezala, lurrean jesarriko gara, korro bat eginez, denok denon aurpegiak ikusteko moduan eta, ondoren, elkartasun-jolasa zer den eta zertan datzan gogora ekarriko dugu. Gero, jolasari buruzko zalantzak argituko ditugu, jarraian, jolasari ekiteko. Bukatzeko, jolastean bizi izandako esperientzia (sentimenak, zailtasunak...) adierazteko, elkarriketa bultzatuko dugu:

- *Nolako sentimenduak izan dituzue zeuen burua deskribatzen ari zineten bitartean?*
- *Zer ezaugarri nabarmendu dituzue? Zergatik? Gustuko al dituzue ezaugarri horiek?*
- *Zer sentitu duzue zuen txarteleko laguna aurkitu duzuenean?*

54. Ederra zareala

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, abestiak, 11. pista

Kleopatraren edertasuna gora eta behera gabiltzan honetan, edertasuna gai duen Bizkaiko kopla zahar bat entzungo dugu, Tapia eta Leturiaren eskutik.

Hasteko, beti bezala, doinuaz eta erritmoaz gozatzen saiatuko gara, kanta entzuten dugun bitartean. Gero, letra arbelean idatzi eta haren azterketa egingo dugu. Abestia herrikoia da eta ahozkoaren transkripzio zuzenean idatzita dago. Letraren esanahia argitzearekin batera, bat-bateko itzultzaileak bagina bezala, euskara batuan adierazten saiatuko gara. Ondoren, abestia entzun eta abestu egingo dugu.

Bukatzeko, elkarrizketa nahiz iritzi-errota antola dezakegu hizpide edertasuna izanik (motak, balioa, estereotipoak...).

55. Laburpen tentagarriaren aurkezpena

Lan egiteko era: Talde handian

Unitatea bukatzeaz dagoenez, gogoratu laburpen tentagarrien aurkezpena egin beharra daukatela ikasleek. Aurkezpen guztiak egun berean egitea aspergarria gerta daiteke; horregatik, komenigarria da egun batean baino gehiagotan egitea.

Aurkezpenak bukatu ondoren, elkarrizketa bultza ezazue aurkezpenen inguruan, nola sentitzen garen besteen aurrean hitz egiteko orduan, zer zailtasun sortzen diren, nola hobe daitezkeen...

56. Ingelesa. ENGLISH: AT THE AIRPORT

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 34. or.

Beti bezala, ikasleei galdetu zertan ari diren lanean, eta egin dituzten lanak edo eta txokoetan duten materiala erakusteko eskatu.

You've been working on Egypt. Can you show me what you have been doing?

Our English page is about Kleo.

Who's Kleo? (A scientist)

What's she doing in Egypt? (She went to a conference. She went to take some books to the library in Alexandria)

Ondoren, liburuxka hartu eta dagokion orrialdeari behatu, (34. or.)

Let's look at our English page. Where is Kleo? Here she is. Let's read what it says.... "Kleo is at Cairo Airport. She is going back home. Look at the picture."

What can you see in the picture? (People, check-in, shops, toilets, aeroplanes, Kleo etc.)

Have you ever been to an airport? What do you remember? What did you do?

What languages can you see in the picture? (English – Arabic)

Does Kleo speak Arabic? No, so she'll have to speak in English.

“What’s Kleo going to do in the airport?” (Check her bag in, show her ticket, show her passport, pass security control, do some shopping, have a coffee, go to the toilet etc)

In pairs or groups of three choose one of the places in the airport and invent the conversation Kleo will have.

INGURUAN IBILI IKASLEAK ANIMATUZ ETA BIKOTEEI BEHAR
ADINAKO LAGUNTZA ESKAINIZ. BOLUNTARIOAK ESKATU
TALDEAREN AURREAN ELKARRIZKETAK ANTZEZTEKO.
(ELKARRIZKETEK OSO MOTZAK IZAN BEHAR DUTE)

O.K. Let’s hear your dialogues. Introduce yourselves. E.g I’m Kleo. And I’m the policeman.

Egindako ahalegina goraiatu.

Bukatzeko, galde iezaiezue ea zer gertatuko dela uste duten Kleo etxerutzen denean: nor izango den haren zain, zer egingo duen lehendabizi..., hurrengo orriko komikiari bidea eginez.

57. Buelako komikia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 35. or.

Hasteko, tarte bat emango diegu ikasleei, komikia bakarka irakur dezaten. Gero, pertsonaien banaketa adostu eta, talde handian, ozeneko irakurketari ekingo diegu, hizkuntzaren baliabide prosodikoak lantzeko asmoz.

Bukatzean, elkarrizketa bultzatuko dugu, hizkuntza-funtzio batzuk martxan ipintzeko:

- *Nor izango ote da Jexux Mai hori? Zer erlazio izango ote du Kleorekin?*
- *Zergatik deitzen diola uste duzu Martinek Kleori Kleopatra? Ba al dute antzik Kleok eta Kleopatrak? Zertan? Eta zertan ez?*
- *Zer da papiroa? Inoiz ikusi al duzu baten bat? Eta egin? Nahi al duzue guk ere Xabierrek bezala geure papiroak egitea?...*

58. Proiektua gauzatzeko

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 36. eta 37. or.

Unitatea landu ahala maketa osatzen ibili bagara ere, iritsi da proiektua bukatzeko ordua. Horretarako, 37. Orrialdean, proiektua burutzeko geratzen zaizkigun urratsak irakurriko ditugu, aurreikusteko zer lan geratzen zaigun oraindik. Ondoren, lanen banaketa egingo dugu:

- Maketa beraren apainketa.
- Erakusketa egingo dugun tokiaren antolaketa (espazioaren apainketa, girotzeko musika, argiak...).
- Erakusketarako gonbidapenak prestatu eta horien banaketa egin. Gogoratu papiro itxura eman diezaiekezuela gonbidapenei, orri batean idatziz eta kontu handiz hegalak suarekin erdi errez.
- ...

59. Sintesia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 38. orrialdetik 40.era

Sintesi orriaren helburua, ikasitakoaren errepassoa egiteaz gainera, hainbat alderdi ebaluatzeko tresnatzat erabiltzeko aukera eskaintzea ere bada. Ikasleak sintesi orri hauek bete aurretik, talde handian, unitatean zehar ikusi eta ikasitakoaren errepassoa egitea aholkatzen dizuegu.

Nolanahi ere, orriotan, unitatean landutakoaren alderdi batzuk baizik ezin dira errepasatu. Hau da, dramatizazioaren, plastikaren eta aho hizkuntzaren inguruan landu diren edukiei, prozesuan zehar (hau da, unitatean zehar dagozkion jarduerak burutzerakoan) behatu beharko diezue, ez baitu zentzu handirik hainbat prozesu luze azken unean eta behaketa egiteko asmoz berriro ere errepikatzeak. Hizkuntza idatziaren inguruko hainbat ekoizpen-lan luzeekin ere gauza bera gertatuko zaigu.

Bukatzean, interesgarria da talde handian elkarrizketa bultzatea, unitatean eurek burututako lana, hor ipinitako gogoia, gozamina, proiektua, etab. era eraikitzaile batean balioesteko edota kritikatzeko.

60. Igarkizunak

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Irakurgaiak 3, 34. or.

Errepaso moduan, ikasleek, bakarka, irakurgaietako igarkizunak irakurri eta asmatu egin beharko dituzte. Nahi izanez gero, deskribapen txikiak eginez, igarkizunetan edo asmakizunetan jolasteko aukera duzue.

61. Letra-zopa

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Lan-koadernoak, 36. or.

Errepaso moduan, ikasleek, bakarka, lan-koadernoko hizki-zopan Egiptorekin zerikusia daukaten hamar hitz aurkitu beharko dituzte: Kleopatra, basamortua, esfingea, momia, Nilo, piramideak, faraoiak, eskriba, jainkoa eta hieroglifoa.

Musikako lan-koadernoak

2.1 SOINEAN DARAMAGUN ORKESTRA

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 2.1 fitxa/CDa, jarduerak 3, 8. eta 9. pistak

Mundua mundu denetik eta gizakia bertan bizi denetik, musika egiteko lehen tresna gorputza izan da. Askotan, gutxiegi balioetsi dugu, baina pentsa: gorputzak, tresna bakar bat izanik, zenbat soinu sortzen dituen. Horregatik diogu SOINEAN DARAMAGUN ORKESTRA.

Gaurkoan, gorputza erabiliz sor ditzakegun 6 soinu aurkezten dizkizuegu eta hausnarketa egiteko aukera ere bai. Arretaz entzun behar ditu ikasleak eta entzunaldiaren zerbakiak jarri. Saiatuko al gara geu ere soinu horiek imitatzen?

1. Gizon ahotsa.
2. Hatz puntaz eginiko kriskitinak.
3. Txalo hotsak.
4. Txistularia.
5. Irrintzilaria.
6. Klakea.

2.2 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: “KUKU, KUKU!”

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 2.2 fitxa/ CDa, jarduerak 3, 10. pista

Si - La - Sol erabiliz osatutako beste melodia erraz bat. Orain artekoak baino luzeagoa, 16 konpasekoa. Ariketa hauek egiteko proposamenak beti berdinak dira:

1. Erritmoa irakurri eta markatu: ahoz dan, dan, dan, dan, dilin..., gorputzezko perkusioarekin, perkusio-tresna txikiekin...
2. Hitza irakurri erritmikoki.
3. Solfeatu.
4. Abestu.
5. Txirula jo.

Konturatuko zineten oraingoan ez dugula eskema erritmikoarentzat aparteko lerrorik erabili. Jakina da pentagraman agertzen dela.

Betiere, komenigarria da, nolabait esateko, txirulaz “entrenamendua” egitea, guk proposatutako eskema erritmiko-tonalak ikasleek errepikatzeko.

ADIBIDEAK:

q q e e q SI SOL SOL SOL SOL	q q e e q SI SOL SOL SOL SOL
q q e e q SI SOL SI SI SOL	q q e e q SI SOL SI SI SOL

q q e e q SI SOL LA LA SOL	q q e e q SI SOL LA LA SOL
q q e e q SI LA SI SI SOL	q q e e q SI LA SI SI SOL
q q e e q SI SOL SI SI SOL	q q e e q SI SOL SI SI SOL

2.3 TIPI TIPI TAP

Lan egiteko era: Talde handian/ Hiru taldetan banatuta

Materiala: Musikako lan-koadernoan, 2.3 fitxa

TAP: q q q q q q q q
TIPI: ee ee ee ee ee ee ee ee
PUM: h h h h

Denok batera, fitxan agertzen diren hiru eskema erritmiko irakurriko ditugu. Beltzak adierazten dituen eskemari q = TAP deitu diogu; kortxeak adierazten dituenari, ee = TIPI; eta zuriak adierazten dituenari, h = PUM.

Ondoren, ikaskideak hiru multzotan zatitu ondoren, talde bakoitzak bere eskemaren entsegua egingo du.

Irakaslearen aginduetara, lehenengo taldea hasiko da; horrek amaitutakoan, bigarrena hasiko da eta, horren segidan, hirugarrenaren txanda izango da.

Talde bakoitzak badaki zer egin behar duen; beraz, koadernoan proposatzen den bezala, hiru taldeak batera irakurtzeari ekingo diogu. Gogoratu azken pauso hori eman aurretik, oso garrantzitsua dela talde bakoitzak bere eskema ongi barneratua edukitzea.

Denok dena ikasi dugunez, taldeek eskema aldatzeko arazorik ez da izango. TAP egin duenak TIPI egin dezala, TIPI egin duenak PUM eta PUM egin duenak TAP. Eta, horrela, konbinaketa guztiak. Denok dena egiteko gai gara. TIPI, TAP eta PUM erabili ordez, DILIN, DAN eta DOON ere erabil daitezke, kanpaien hotsak imitatuz.

Ariketa honen bidez denboraren kontzeptua barneratzen ari gara. Hau da, hiru taldeek denbora berdina dute ibilbide bera egiteko, baina batzuek besteek baino soinu gehiago egin behar dituzte ibilbide hori osatzeko.

Bestalde, koral erritmiko bat egiten ari gara, hiru ahotsetan hain zuzen ere.

2.4 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: “ERRAMUN BABARRUN”

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 2.4 fitxa/CDa, jarduerak 3, 12. pista

Ikasturtea aurrera doa eta nota berriak ikasiz joan behar dugu. Mi datorkigu ate joka.

Mi nota txirulaz jo ahal izateko, eskuin eskuaren partaidetza beharko dugu. Orain arte eskuinaren lana, gehienez ee, txirula ongi eustera mugatu da, baina gaurtik aurrera protagonismo handiagoa izango du.

Garrantzitsua da eskuin esku honetako hatz lodia txirularen atzealdean ongi kokatzea eta horri tinko eustea, modu horretan asko erraztuko baitie gainerako hatzei beraiei dagozkien zuloak berehala aurkitu eta egoki ixten.

Hasiera batean, pixka bat kostako da Mi jotzea. Erramunen kanta hau jotzen hasi aurretik, zenbait ariketa egin beharko ditugu Sol eta Mi notekin. Gogoan izan “entrenamendua” deitzen diogun hori garrantzitsua dela gero pieza bat erraztasunez jo ahal izateko. Irakasleak adibide desberdinak eman eta ikasleek errepika ditzatela.

ADIBIDEAK:

IRAKASLEAK	IKASLEEK TXIRULAZ
q q e e q MI MI MI MI MI	q q e e q MI MI MI MI MI
q q e e q SOL SOL SOL SOL SOL	q q e e q SOL SOL SOL SOL SOL
q q e e q SOL SOL MI MI MI	q q e e q SOL SOL MI MI MI
q q e e q SOL SOL SOL SOL MI	q q e e q SOL SOL SOL SOL MI
q q e e q SOL MI SOL SOL MI	q q e e q SOL MI SOL SOL MI
q q e e q MI MI MI MI SOL	q q e e q MI MI MI MI SOL
q q e e q MI SOL SOL SOL MI	q q e e q MI SOL SOL SOL MI
q q e e q MI SOL MI SOL SOL	q q e e q MI SOL MI SOL SOL
q q e e q SOL SOL MI MI SOL	q q e e q SOL SOL MI MI SOL
□□□□ SOL MI MI MI SOL	□□□□ SOL MI MI MI SOL

2.5 ERRITMO-DIKTAKETA

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 2.5 fitxa

Irakasleak sei eskema jo beharko ditu perkusiozko edozein musika-tresna erabiliz, banan-banan, noski, eta hiru zelula erritmiko horiez baliatuta: □□□□(zuria beltza kortxeak). Nahi izanez gero, mimika pixka bat erabil dezakegu, 2. mailan azaldutako hartzen familiaren ideia irudikatuz. Hau da, kortxeak egiterakoan, makurtu, hartz txikien mugimendua imitatuz. Beltzak normaltasunez jo eta zuriak egiterakoan, aurpegia eta gorputza puztu, hartzaren mugimendu geldoa imitatuz.

Eskema bakoitza nahi adina errepikatuko dugu eta, hala ere, baliteke ikasleren bat edo bestek zailtasunak izatea irakasleari entzundakoa koadernoan idazteko. Beharra balego, azkenik, eskemak ahotsez lagunduko ditugu, dilin dan edo antzeko formulaz baliatuz. Hala ere, komenigarria da, poliki-poliki, musika-tresna bakarrik entzunez erritmoa idaztea.

Hona hemen sei adibide, baina gogoan izan asko eta asko daudela.

1. dan dan dilin dan..... □□□□□
2. dan dan DOON.....□□□
3. dilin dan dilin dan..... □□□□□□
4. dilin dan DOON..... □□□□
5. dilin dilin dan dan..... □□□□□□
6. dilin dilin dilin dan..... □□□□□□□

2.6 KALEZ KALE MUSIKA ENTZUTEN

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 2.6 fitxa/CDa, jarduerak 3, 13. pista

Musika toki askotan entzun ohi da. Ez bakarrik antzoki eta etxeetan. Guk bidaia bat egin dugu gure herriko kaleetan zehar, eta hara zer bildu dugun.

CDa ipini aurretik, hausnarketa txiki bat egingo dugu. Ziur gaude musika entzuten den beste toki gehiago bururatuko zaizkigula denon artean.

Hona hemen guk jasotakoak:

1. Bertsolaria.
2. Elizako korua.
3. Rock kontzertua.
4. Musika-eskolako tronpeta-jotzailea.
5. Langile bat irratia entzuten.
6. Eskolako haur taldea.
7. Pailazoen emanaldia.

Lan polita izan daiteke ikastola dagoen auzoko edo gure herriko mapa musikala egitea ere. Talde desberdinak osatu eta herrian zehar hainbat ibilbide egin ondoren, talde bakoitzak konta dezala zer eta non entzun duen. Musikarrik ez bada ere, hotsak entzungo dituzte eta horiekin ere osa daiteke “soinu-mapa”.

2.7 LETRA-ZOPA

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 2.7 fitxa

Letra-zopa honetan, perkusiozko zazpi musika-tresna aurkitu beharko ditugu. Aurkitu ahala marrazkiak egingo ditugu.

Txindatak, panderoa, bonboa, marakak, klabeak, danborra eta triangelua dira aurkitu beharreko izenak.

Suposatzen da gure ikasleek ongi dakitela zein diren perkusiozko musika-tresnak, baina, agian, ez legoke gaizki errepasso txiki bat egitea eta tresna melodikoak eta perkusiozkoak zertan bereizten diren aipatzea.

2.8 TXIRULA JOTZEN IKASTEN: “BARTOLO POTOLO”

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 2.8 fitxa/CDa, jarduerak 3, 14. pista

Sol eta Mi notak lantzen jarraitzeko, beste adibide bat duzue honakoa. Erritmoaren aldetik, oso sinplea, beltzak eta zuriak bakarrik baititu. Melodiaren aldetik, aipatu bezala, bi nota besterik ez ditu. Duen zailtasun bakarra bi eskuekin egin behar dugula lan. Horretarako, jadanik, ohituta gaude “entrenamendua” egiten. Beraz, hasi lanean, eta nahikoa entrenatutakoan, kanta bera landuko dugu. Beti bezala, erritmoa irakurri, hitzak irakurri, solfeatu, abestu eta txirula jo.

Gogoratu Sol nota jotzen ohituta daudela ikasleak, eta Mi jotzeko, eskuin eskuko *morro* eta *piko* batera jaitsi behar dituztela. Txirula ahoan ondo kokatuta edukitzea ere azpimarratu nahi dugu eta zulotxoak ikusi gabe, ongi tapatu behar ditugula. Goxo-goxo putz egin behar dugula eta zenbat eta zulo gehiago tapatu, orduan eta goxoago joko dugula konturatu behar dugu.

Hainbat alditan errepikatu beharko dugu kanta Mi nota ongi ateratzeko; beraz, ikasleak asper ez daitezen, gogoratu jolas asko egin ditzakegula, lehenengo unitatean proposatutakoan antzekoak. Ez legoke gaizki bi nota horiek erabiliz beste konbinaketa batzuk ere ikasleei proposatzea. Asko daude.

ADIBIDEAK:

IRAKASLEAK	IKASLEEK TXIRULAZ
□ □ □ □ □ MI MI MI MI MI	□ □ □ □ □ MI MI MI MI MI
□ □ □ □ □ SOL SOL SOL SOL SOL	□ □ □ □ □ SOL SOL SOL SOL SOL
□ □ □ □ □ SOL SOL MI MI MI	□ □ □ □ □ SOL SOL MI MI MI

□□□□□ SOL SOL SOL SOL MI	□□□□□ SOL SOL SOL SOL MI
□□□□□ SOL MI SOL SOL MI	□□□□□ SOL MI SOL SOL MI
□□□□□ MI MI MI MI SOL	□□□□□ MI MI MI MI SOL
□□□□□ MI SOL SOL SOL MI	□□□□□ MI SOL SOL SOL MI
□□□□□ MI SOL MI SOL SOL	□□□□□ MI SOL MI SOL SOL
□□□□□ SOL SOL MI MI SOL	□□□□□ SOL SOL MI MI SOL
□□□□□ SOL MI MI MI SOL	□□□□□ SOL MI MI MI SOL

LAN-KOADERNOTIK APARTEKO ABESTIAK

SOINEAN DARAMAGUN ORKESTRA

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, jarduerak 3, 8. pista

A

*Dunba eta dunba, txinda, txinda, txinda,
orkestra bat dut soinean;
soinu politak, musika xarmantak
sortzen dizkigu eskolan.*

B

*Bi oinak lurra kolpatuz:
DUNBADUN!DUNBADUN!
DUNBALAK DUN DUN!*

*Belaunak gogoz kolpatuz:
TRAPATRAN! TRAPATRAN”
DANBORRAN TAN TAN!*

*Eskuak elkar kolpatuz:
TXINDATXIN! TXINDATXIN!
TXINDATAK TXIN TXIN!*

*Hamar hatz kliska kliskliska:
KRISKITIN! KRANKITIN!
ARROSA KRABELIN!*

D

DUN DUN! TAN TAN!

TXINDA! PLIS!

DUN DUN! TAN TAN!

TXINDA! PLIS!

DUN DUN! TAN TAN!

TXINDA! PLIS!

DUN DUN! TAN TAN!

TXINDA! PLIS!

Abesti honekin gauza piloa ari gara lantzen. Hasteko, txaranga bateko edo orkestra bateko partaideak gara. Denok zutik jarriko gara eta denok izango gara dunba-jotzaile, danbor-jotzaile, txindata-jotzaile eta krotalo-jotzaile. Keinuz imitatuko dugu tresna bakoitza.

- Lehenengo zatian (**A**), biko neurrian, ibilian joango gara gelan zehar, txaranga baikara.

- Bigarren zatian (**B**), elkarri begira jarriko gara eta esandakoa egingo dugu: bi oinak lurra kolpatuz: DUNBADUN! DUNBADUN! DUNBALAK DUN DUN! □□□□□□□□□□(dilin dan, dilin dan, dilin dan, dan, dan). Eta horrela gorputzaren beste zatiekin ere. Beti eskema erritmiko berdina erabiltzen da.

- Hirugarren zatian (**D**), honako eskema erritmiko hau egingo dugu, abestian aipatu diren gorputz atalekin:

□□□□□□□□ (dan dan , dan dan, dan dan, doon).

Oinekin bi kolpe: □□

DUN DUN

Belaunak kolpatuz: □□

TAN TAN

Txaloekin beste bi: □□

TXIN - DA

Hatzak kliskatuz bat: □

PLIS

. □□□□□□□□

DUN DUN! TAN TAN! TXINDA! PLIS!

Konturatuko zinetenez, gorputz-perkusioa lantzen ari gara.

Espazioari dagokionez, lau maila ditugu: oinak behean, belaunak gorago, txaloak goian eta kraskinolak gorago. Soinuari dagokionez, grabetik agudora goaz, behetik gora. Hurrengo unitatean, hain zuzen ere, altuerari buruz arituko gara, eta egokia da aurrez gorputzez sentsazio hori bizitzea.

Kanta hau egiterakoan, lau talde ere osatzeko aukera daukagu: dunbalena, danborrena, txindatena eta krotaloena. Betiere, gorputz-atalak erabiliz egiteko. Denok dena egiten ikasi dugunez, orain talde bakoitzak bere tresnari dagokiona egingo du eta, gero, taldeak aldatuz joango gara.

Lantzen ari garen eskema erritmiko guztiak arbelean idaztea ere komenigarria da, gorputzez egin dugun guztia idatz eta irakur daitekeela, alegia.

MAITEMINDURIK

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, jarduerak 3, 11. pista

A

1 2 1 3

Maitemindurik dago zurekin.

1 2 1 3

Maitemindurik duzu Joakin.

1 2 1 3

Maitemindurik dago zurekin

4

eta bere banjo zaharrarekin

B

5 6 7 8

Bon-bon-bon, fli, flai, flaiola,

6 7 8 6 7 8

fli, flai, flaiola; fli, flai, flaiola.

4

Eta bere banjo zaharrarekin.

5

Bon-bon-bon.

Inor ez dadila ikara zenbaki horiek guztiak ikusita, oso erraza da eta. Zenbaki bakoitza keinu bat da.

Hasteko, denok lurrian eseriko gara, biribil bat osatuz. Indioen antzera eta elkar ukituz.

KEINUAK:

1. Norberak bere izterrak eskuz kolpatu.
2. Ezkerreko lagunaren izterrak eskuz kolpatu.
3. Eskuineko lagunaren izterrak eskuz kolpatu.
4. Banjo-jotzailearen keinuak.
5. Danbor-jotzailearen keinuak.
6. Zeharkako txirula jotzen duenaren keinuak.
7. Biolin-jotzailearen keinuak.
8. Tronboi-jotzailearen keinuak.